

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Behin betiko onestea zerga ordenantzaren aldaketa

Ondoren aipatzen diren zerga ordenantzen aldaketaren aurka ez da erreklamaziorik aurkeztu:

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.

Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza.

Erabilera publikoko lursailak, irabazteko asmoarekin, mahaiekin, aulkiekin eta osagarriekin okupatzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza.

Horiek horrela, behin betiko onetsita geratzen dira, eta osorik argitaratzen dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, ondasun higiezinaren gaineko zerga eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinen zati baita tarifa aplikagarria eta dirubilketa epea jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ondasun higiezinaren gaineko zerga zuzeneko tributu bat da kargatzen duena Iruña Okako udalerrian dauden landa eta hiri ondasun higiezinaren balioa.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

1. Zerga egitatea da landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna:

a) Administrazio kontzesio bat, ondasun higiezinaren beren gainean, edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gainean.

b) Azalera eskubide erreal bat.

c) Gozamen eskubide erreal bat.

d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan azaldutako zerga egitateetako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezinaren ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honi dagokionez, landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin izango dira zerga ordenantza honen 4. artikuluan zerrendatutakoak.

4. Ondasun higiezin bat hainbat udalerritan badago, zerga honi dagokionez, udalerrri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

4. artikulua

1. Katastroaren ondorioetarako, ondasun higiezin izango da izaera bera eta bakarra duen lurzattia, baldin eta udalerrri baten barruan badago eta poligono batek mugatzen badu; Poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen du eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak ere ondasun higiezin izango dira, higiezina dela-eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezinak dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatiboak, jabetza horizontaleko erregimen bereziari lotuak; elkarri lotutako elementu pribatiboek osatutako multzoak, baldin eta egintza bakarrean eskuratu badira, eta, orobat, arauz ezarritako baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak (jabetza indibisokoak), titular baten erabilera eta gozamen eskusibo eta iraunkorrari atxikiak. Katastro baloraziorako ez beste ezertarako, elementu komunak arauz ezartzen den bezala gehituko zaizkie ondasun higieziari.

b) Artikulu honen 4. apartatuan jasotakoak.

c) Ondasun higiezinaren gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesio baten espazio eremua, aurreko letretan xedatzen diren egoeretan izan ezik.

2. Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

a) Hiri lurzorua. Honako hau jotzen da hiri lurzorutzat:

a) Hirigintzako planeamenduaren arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizatuak direnak, eta horien baliokideak.

b) Lurzoru urbanizagarriak eta lurralde antolamendurako eta hirigintzako tresnen arabera urbanizatutako diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, hain zuzen ere, mugatutako esparruetan daudenak, eta mota honetako gainerako lurzoru guztiak hirigintzako tresna batek haien garpenerako arauak ezartzen dituenen.

c) Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiri eraikuntzak:

a) Eraikinak, edozein direlarik, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitzeko eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta hartzen duten lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza eta industria instalazioak, adibidez, dikeak, tankeak eta zamatzeko tokiak.

b) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, lur berdinketak esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egingo diren obrak. Hor sartzen dira azoka barrutiak; aire zabaleko deposituak; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak; aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

c) Hurrengo apartatuan landako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikinak.

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak dauden lurzoruak ez dira hiri lurrak.

3. Landa lurzorua da aurreko apartatuan xedatzen denaren arabera hiri lurzorua ez dena, ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean ez badago.

Zerga honen ondorioetarako, batez ere honako hauek izango dira landa ondasun higiezinak:

a) Hiri lurrak ez direnak, aurreko apartatuaren a) letran ezarritakoaren arabera.

b) Landako eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikinak edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin izango baitira.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute (lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak). Multzoak, berez, horiek guztiak bateratzen dituzenez, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, ondasun higiezin bakartzat jotzen da katastroaren ondorioetarako.

Ezaugarri berezietako ondasun higiezinak hartuko dira, aurreko apartatuaren arabera, talde hauetan daudenak:

a) Energia elektrikoa eta gasa ekoitzi eta petrolioa birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.

b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; ureztaketarako bakarrik erabiltzen direnak izan ezik.

c) Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.

d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

III. Salbuespenak

5. artikulua

1. Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal edo toki erakundeen jabetza diren ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza eta presondegi zerbitzuei zuzenean atxikita badaude.

b) Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.

c) Errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

d) Kuadrilla, udal, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak, zerbitzu edo erabilera publikoa badute xede. Aurrean xedatutakoa ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoa kontzesio administratibo batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularra irabazteko asmorik gabeko elkarte bada eta aipatutako erakundearekin lankidetzak jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzak jarduerak.

Halaber, salbuetsita daude komunitateak aprobetxatzen dituen mendiak eta gainerako ondasun higiezin guztiak, bai eta herri basoak ere.

e) Hazkunde geldoko espezieez landatutako mendiak, izan titulartasun publikokoak, izan pribatukoak.

Salbuespen hau hazkunde geldoko baso espezieei dagokie (Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren izendegiari jarraikiz), hain zuzen ere batez ere zuretarako aprobetxatzen direnei, eta espezie horiekin landatutako baso sailei bakarrik, baldin eta zuzaitzen dentsitatea espeziearen berezkoa bada.

Orobat, aurreko apartatuan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenean sartzen dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoek arabera birsortzen ari diren zuhaitziak dauden eremuak ere bai. Paragrafo honetan ezartzen den salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskaera aurkeztu eta ondoko zergalditik aurrera.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz estatu espainiarrak eta Vatikanokoak sinatutako akordioan araututakoaren arabera.

g) Legeak onartutako elkarte konfesional ez katolikoek ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluko aipatzen dituen lankidetzaren hitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren eta horren antzeko erakundeek ondasunak; arazuz ezarriko da zein diren horiek.

i) Indarrean diren nazioarteko hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatzen zaien ondasun higiezinak, eta atzerriko gobernuek, diplomaziako, kontsulatu edota erakunde ofizialen ordezkarietarako erabiltzen dituztenak, elkarrekotasuna egonez gero.

j) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietako eraikinak, trenbideek ustiatzeko behar diren geltokiak, biltegiak edo beste edozein zerbitzu, baldin eta trenbidearen ustiapenerako ezinbestekoak badira.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatek ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

k) Monumentu izendapena duten ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluko 2. apartatuko a) letran xedatutakoaren arabera. Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuetsita daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatzen duenaren arabera. Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuei, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.

Orobat, salbuetsita daude Espainiako ondare historikoko ondasun higiezinak; hain zuzen ere, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako ondare historikoenak, finkatu zuen ondare historikoko ondasun higiezinak.

l) Irakaskuntzarako erabiltzen diren ondasun higiezinak, baldin eta, osorik edo zati batean, hezkuntzako itunaren pean badaude; horretarako, itunaren menpeko irakaskuntzari eskaintzen dioten azalera hartuko da kontuan.

m) Zerga bilketaren kudeaketa eraginkortasunez eta ekonomiaz egiteko, salbuetsita egongo dira 650 eurotik beherako zerga oinarria duten hiri ondasun higiezinak. Halaber, eta arrazoi beragatik, landa ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira, baldin eta subjektu pasibo bakoitzak udalerrian dauzkan landa ondasun higiezin guztien zerga oinarria 1.220 euro baino gutxiago bada.

IV. Subjektu pasiboa

6. artikulua

1. Zergadunak diren neurrian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak dira subjektu pasibo, baldin eta zerga honetako zerga egitatea osatzen duen eskubidearen titular badira.

Ondasun higiezin baten gainean kontzesiodun bat baino gehiago egonez gero, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkaria.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu egin behar da, hargatik eragotzi gabe subjektu pasiboak zerga karga beste batzuei jasanarazi ahal izatea zuzenbide erkidearen arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

V. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Ondasun higiezinaren balioa da zerga oinarria.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren balio gisa, haien katastro balioa hartuko da; katastro balioa ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziatzen hartuta finkatuko da, eta ezin izango da merkatu balio hori gainditu.

8. artikulua

1. Hiri ondasun higiezinaren katastro balioan lurzorua balioa eta eraikinen balioak sartu behar dira.

2. Lurzorua balioa kalkulatzeko kontuan eduki behar dira eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintza eta eraikuntzako inguruabarrak ez ezik, haien izaera historiko eta artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzintasuna hartuko dira aintzat, eta eragina eduki dezaketen gainerako faktore guztiak ere bai.

9. artikulua

1. Landa lurreko ondasunen katastro balioa lurra balioak eta eraikinenak osatuko dute.

2. Landa lurra balioa kalkulatzeko haien benetako errentak edo errenta potentzialak kapitalizatu behar dira arauz ezarritako interes tasa aplikatuta, lurra emankortasuna eta dauden sailak edo aprobetxamenduak kontuan hartuta, katastroan ezarritako ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, nekazaritzako ezaugarri homogeneoak dituen alde edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo apartzeriak ikertuz lortzen diren datuak hartu ahal izango dira aintzat.

Paragrafo honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira, halaber, landa lurretan egindako hobekuntzak – haren balioaren zati bereiztezin direnak –, eta, hala badagokio, produkzioa sartu aurretik igarotako urteak. Basogintzarako erabiltzen diren lurra izanez gero, landaketaren adina, zehazten den egoera eta aprobetxamendu zikloa hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, kontuan hartuko da aprobetxamendua handiagoa izateko ohiko produkzio bitartekoak erabiltzea edo aplikatzea; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiategiaren izaera edo udalerraren ezaugarriak direla eta lurra benetako errentak edo errenta potentzialak zenbatekoak diren jakiterik ez badago, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak barne) nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta lurra ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak hartu ahal izango dira kontuan.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluen 3. apartatuan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaera hori ahalbidetzen duen neurrian.

10. artikulua

Aipatutako katastro balioak finkatzen dira higiezinaren katastroetan dauden datuak oinarri hartuta. Kasuen arabera, katastro balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira, 12., 13., eta 14. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

11. artikulua

Landa eta hiri ondasun higiezinaren katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezinaren datu eta deskripzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

12. artikulua

1. Katastro balioak 8. eta 9. artikuluetan arautzen diren balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugatuko du alde zuzenetik, indarrean dauden hirigintzako xedapenekin bat etorritik. Dena dela, lurzoruaren izaeran aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezko izango mugaketa berri hori egitea.

3. Aurreko apartatuan aipatutako lurzoruaren mugaketa lanak egin ondoren, behar izanez gero, Arabako Foru Aldundiak bidezko balio txostenak egingo ditu; txosten horietan katastro balioak finkatzeko aplikatu behar diren irizpideak, balioespen taulak eta gainerako elementuak zehaztuko dira.

4. Hiri lurzoruaren mugaketaren eta balioespen txostenen gainean, Foru Aldundiak entzualdia emango die udalei, hamabost eguneko epean txostena aurkez dezaten, egoki jotzen dutena azalduz.

Udalaren txostena aztertu ostean, Arabako Foru Aldundiak egoki jotzen duena ebatziko du.

5. Foru Aldundiak hiri lurzoruaren mugaketa onartu ondoren, jendaurrean erakutsiko da 15 egunez, interesdunek egokitzat dauzkaten erreklamazioak egin ditzaten. Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta Arabako lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuko da.

6. Balorazio txostenak, behin Arabako Foru Aldundiak onarturik, argitaratu egingo dira ALHAOn eta udalaren ediktuen bidez, noiz hasi behar duten eragin izaten txosten horietatik eratorritako katastro balioek, bada aurre-aurreko urtean.

Bertratze bidezko jakinarazpena erregelamenduz arautuko da, eta jakinarazpena horrela egin behar denean, epe bat izango da jakinarazpena jasotzeko, gutxienez hamar eguneko, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori igaro eta jakinarazpena jaso ez bada, dagokion administrazio egintza jakinarazita dagoela ulertuko da ondorio guztietarako.

7. Txostenak argitaratu eta gero, haien ondoriozko katastro balioen subjektu pasibo guztiei jakinaraziko zaizkie, banan-banan edo subjektu pasiboa edo baimena daukan pertsona bulegora joanik, balioek eragina sortu behar duten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.

8. Horrela ezarritako katastro balioak zortzi urtean behin berraztertu beharko dira.

13. artikulua

1. Katastro balioak Arabako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizios edo Udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo beste inguruabar batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela udalerrira osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren katastro balioen eta merkatu balioen artean.

2. Aldaketa hori egiteko balio txosten berriak prestatu beharko dira, ezinbestean, aurreko artikuluan adierazi den bezala, eta ez da egongo hiri lurrak berriz mugatu beharrik.

3. Balio txostenak prestatutakoan aurreko artikuluan araupetu diren izapideei eta prozedurei ekingo zaie.

14. artikulua

Aipatu katastro balioak Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.

VI. Zerga kuota

15. artikulua

1. Zerga kuota kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

Kuota likidoa kalkulatzeko legez ezarritako hobarien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Karga tasa da eranskinean agertzen dena.

VII. Hobariak

16. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo batek bere ohiko etxebizitzaren gaineko eskubide bat badauka (etxebizitza osoa zein zati bat), hobaria aplikatu ahal izango du zergaren kuotan, hurrengo zenbakietan azaltzen den bezala eta ezartzen denarekin bat etorritz.

2. Hobaria zergaren kuota osoaren gainean aplikatuko da, ondasun baten (osoa zein zati bat izan) gaineko eskubidea duten titular ezberdinen bizikidetzaren unitateen diru sarreraren arabera. Kontuan hartuko dira taula hau, eta hobari bakoitzaren atalean dagoena:

HOBARIARI APLIKATUKO ZAION EHUNEKOA	DIRU SARRERAK
ehuneko 100	20.000 euro, gehienez
ehuneko 75	20.000 euro eta 30.000 euro bitartean
ehuneko 50	30.000 euro eta 40.000 euro bitartean
ehuneko 25	40.000 euro eta 60.000 euro bitartean
ehuneko 0	60.000 euro baino gehiago

Taulako errenta tarreak eta ehunekoak aplikatzeko ohiko etxebizitzaren gaineko eskubidea (etxebizitza osoa zein zati bat) daukanaren bizikidetzaren unitateko kide guztien errenta guztiak batuko dira, honako hauek aintzat hartuz:

3. Hobariak bizikidetzaren unitateari aplikatuko zaizkio (alegia, uneko urteko urtarrilaren 1ean etxebizitzan erroldatuta daudenei) baldin eta etxebizitza hori ohiko bizilekua bada zerga legerian ezarritakoaren arabera, eta pertsona horiek ez badute etxebizitza moduan erabiltzen den beste ondasun higiezinik udalerrian.

Aurreko idatz zatian aipatutako errenta zehazteko pertsona fisikoen errentaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatze balio duen beste edozein informazio.

Ondorio hauetarako, apartatu honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urteko azken errenta aitortzea hartuko da aintzat.

Hobariak ez dira bateragarriak.

Hobariak:

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landaketa edo basoa babestutako natura inguruetan duten landa lurrek.

GEH.	EHUNeko 100	EHUNeko 75	EHUNeko 50	EHUNeko 25	EHUNeko 0
95	95	71,25	47,5	23,75	0

2. Urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik eta haien ibilgetuan jasota ez badaude.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

3. Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobarirako eskubidea izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek, behin betiko kalifikazioa eman eta hurrengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplikatu dezakete landa ondasunen kuotetan, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak ezartzen duenarekin bat etorriz.

5. Hobariak energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak instalatzeagatik.

5.1. Etxebizitza gisa erabiltzeko diren ondasun higiezinak eta beste erabilera batzuetarako diren higiezinak batez ere etxebizitza gisa erabiltzeko erabilera mistoko eraikinetan badaude, zerga honen subjektu pasiboen jabetzakoak badira, eta horietan eguzki energia edo bestelako energia berriztagarriak autokontsumorako (berokuntza eta elektrizitatea) aprobetxatzeko sistemaren bat instalatuta badute, zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hobaria izango dute, instalazioa amaitu eta hurrengo hiru zergaldietan.

Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek dagokion Administrazioaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak izatea.

Kasu guztietan, beroa sortzeko instalatutako sistemetako eguzki energia biltzeko azalera gutxienez 4m² izan behar da higiezinaren eraikitako 100 metro koadroko, eta aprobetxamendu elektrikorako instalatutako sistemen potentzia gutxienez 5 kW izan behar da eraikitako 100 metro koadroko.

Bestelako energia berriztagarrien kasuan, erregai fosiletako egungo berogailu sistemak energia berriztagarrietan oinarritutakoengatik aldatzea bermatuko da. Gainera, Udalaren lizentzia egokia eskatu eta lortu dela frogatu behar da.

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
50	50	37,50	25	12,50	0

5.2. Eguzki energia aprobetxatzeko sistema hauek nahitaez instalatu behar badira arloko berariazko arautegiaren arabera, hobari hau ez da aplikatuko.

5.3. Hobari honek erregu izaera izango du eta, hala badagokio, eskatzen den zergaldiaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, baldin eta, alde aurretik, baldintzak betetzen baditu eta udalean egiaztatzen bada hobaria emateko eskatutako betekizunak betetzen direla.

5.4. Hobari hau bateraezina izango da artikulu honetan arautzen diren gainerako hobariekin.

6. Eraikinen energia ziurtagiriaren arabera hobariak.

6.1. Zerga honen subjektu pasiboenak diren ondasun higiezinak, ohiko etxebizitza direnean eta A motako energia efizientzia dutenean, ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta B motakoa dutenean ehuneko 25ekoa.

6.2. Energia ziurtagiriak lortzea apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan arautzen da.

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
50	50	37,50	25	12,50	0

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
25	25	18,75	12,50	6,25	0

7. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobaria izango dute familia ugarien titular diren subjektu pasiboek, honako baldintzetan:

Familia ugarien titular diren subjektu pasiboek eskubidea izango dute ohiko bizilekua den etxebizitzaren zergaren kuota osoan ehuneko 40ra arteko hobaria izateko. Ohiko bizilekua izateko baldintza da familia unitateko kide guztiak bertan erroldatuta egotea.

Hobari hori aplikatzerakoan, familiaren errenta hartuko da kontuan, taula honen arabera:

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
40	40	30	20	10	0

Subjektu pasiboak egin behar du hobariaren eskaera, eta eskaera horrekin batera honakoak aurkeztu behar ditu:

- Hobaria eskatzeko idazkia. Eskaera horretan, ondasun higiezinaren zein den adierazi behar da.
- Ondasun higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Familia ugariaren egiaztagiria, edo familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Udal erroldaren egiaztagiria.
- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azken aitortpena.

Hobariaren gozatzeko epea urtebetekoa izango da, nahiz eta subjektu pasiboak epe hori luzatzeko eskatu ahal izango duen hobaria bukatzen den urtearen barruan. Horretarako, araututako baldintzak batera eman behar dira. Edonola ere, hobaria ofizioz iraungiko da, subjektu pasiboak familia ugariaren titularra izateari edo aipatutako baldintzaren bat betetzeari utzi eta hurrengo urtean.

8. Zerga honen kuota gordinaren ehuneko 50 ordaintzeko eskubidea izango dute azalera eskubidearen erregimenean okupatzen diren gizarte etxebizitzak. Gizarte etxebizitzaren araubide juridikoa eta finantza neurriak ezartzen dituen uztailaren 30eko 212/1996 Dekretuaren 16. artikuluan arautzen da zeintzuk diren horiek. Hobari hori 15 urtean aplikatu ahal izango da.

“Hobariak subjektu pasiboak eskatu behar ditu urte horretako irailaren 15a baino lehen.” Hala izango ez balitz, hobari horiek datorren ekitalditik aurrera emango dira.

9. Etxebizitza erabilerako ondasun higiezinaren ez bada subjektu pasiboaren egoitza ez hirugarrenena errentamenduaren edo erabileraren lagapenaren bidez, udalak zergaren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarreko errekarua eskatuko du. Errekargu hori ondasun higiezinaren gaineko zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da zerga honen kuotarekin batera.

Etxebizitza erabilerako ondasun higiezinaren bat bertan bizi direnen egoitzat hartuko da baldin eta ondasun higiezinaren gaineko zerga sortzen den egunean udalerriko erroldan hala agertzen bada.

Errekargu hau aplikatzean kontuan edukiko dira etxebizitzaren eranskinak, berarekin batera erregistro finko bakarra osatzen dutenak, alegia.

VIII. Sortzapena

17. artikulua

1. Zerga urtero sortzen da, urtarrilaren 1ean.
2. Zergaldia urte naturala da.
3. Zergapeko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, ekonomikoek eta juridikoek hurrengo zergaldian sortuko dituzte ondorioak, eta horretarako ez da ezinbestekoa izango bidez administrazio egintzak jakinaraztea.

18. artikulua

1. Zerga egitate diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada (arrazoia edozein dela ere), eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzeko erabili beharko dira, Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen den bezala. Horiek horrela, notarioek argibideak eskatuko dituzte, eta agertzen direnei berariaz jakinaraziko diete, baimentzen dituzten agirietan, eskualdatzen den higiezinak zer zor dituen ordaintzeke ondasun higiezinaren gaineko zergan, zein epetan aurkeztu behar duten zerga horren aitorpena, ondasunek duten afektazioa zerga kuota ordaintzeko, eta, halaber, zein erantzukizun hartzen duten aitorpena aurkezten ez badute, aitorpena epez kanpo aurkezten badute, edo aitorpen faltsu, osatugabe edo zehaztugabea aurkezten badute.
2. Zerga zorraren ordaintzaren erantzule solidario izango dira, nor bere partearen arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. apartatuan xedatutako erakundeetako titularkideak eta partaideak, baldin eta higiezinaren katastroan hala agertzen badira inskribatuta. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko zaie.

IX. Zergaren kudeaketa

19. artikulua

Zerga urtero egingo den erroldaren bidez kudeatuko da, non ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta katastro balioak (landa eta hiri ondasunak bereiz) barne hartzen dituen erroldak jasoko baitira. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.

20. artikulua

1. Subjektu pasiboek, zergaren peko ondasunak zein udalerritan dauden, hantxe aurkeztu beharko dute ondasun horiei buruzko aitorpena, arauz ezarritako epean:
 - a) Eraikuntza berrien kasuan, alta aitorpena egin beharko dute.
 - b) Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskuratzailerak alta aitorpena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskualdatzailerak, berriz, baja aitorpena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu: eskuratzaileraren izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokapena, eskualdaketa data eta kontzeptua.

Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren ondorioz egiten bada, oinordetzen gaineko zerga likidatzen den egunetik hasiko da kontatzen epea, eta oinordekoak alta eta baja aitorpenak aurkeztu beharko ditu.

 - c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, kausa fisiko, ekonomiko zein juridikoak direla medio sortuak.

Idatz zati honetan zerrendatutako aitorpenak ez aurkeztea edo epe barruan ez egitea zerga arau haustea izango da.

21. artikulua

Higiezinaren katastroen berrikuspenen ondorioz, katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeko egiten diren eragiketen ondorioz, ikuskapen jardueren ondorioz eta altak eta berriemateak direla eta katastro horietan datuak sartzen dira edo dauden datuak kentzen edo aldatzen dira. Bada, horiek guztiak administrazio egintzak izango dira eta zergaren eroldaren aldaketa ekarriko dute. Erroldan aldaketaren bat egin ahal izateko, higiezinaren katastroetan dauden datuekin lotuta badago, aldaketa bera egin beharko da higiezinaren katastroetan, nahitaez eta aldez aurretik.

22. artikulua

1. Udalak du zerga ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, araututako aldian zein premiamenduko bidean, baldin eta zergapeko ondasunak udal horren menpeko udalerrian badaude, baina hori ez da eragozpen izango 3. zenbakian ezarritakoa betetzeko.

2. Hain zuzen ere, Udalaren egitekoak dira altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, Zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea zerga honen inguruko gaiez.

3. Arabako Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzoruaren mugaketak eta balioeztapen txostenak egin eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga eroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspena, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio.

Udalek katastroa prestatzen eta artatzen lagunduko diote Foru Aldundiari.

Era berean, Foru Aldundiari dagokio kobrantzako ordainagiriak egitea. Udalek 42/1989 Foru Arauaren 15. artikuluan 7. eta 9. apartatuetan aipatzen diren hobari pertsonalak ezartzen badituzte, eta aipatutako Foru Arauaren 14. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan aurreikusitako kasuetan ere bai, ordainagiriak udalek egin beharko dituzte. Era berean, Foru Aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskaritza.

23. artikulua

Balio txostenak onartzeko egintzen eta katastro balioen kontra zerga ordenantza honen 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera aurkezten diren errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztzeko dira zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 229. artikulutik 246.era xedatutakoaren arabera, eta berraztertze errekurtsioak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiarena izango da. Horrelako errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

24. artikulua

1. Errolda Foru Aldundiak egingo du eta Udalarari bidaliko dio.

2. Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 eguneko epean, zergadunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

3. Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak dauzkaten udalek horien lehen-dakariei gutxienez bi egun lehenago jakinaraziko diete iragarkia noiz jarriko den jendaurrean, haiek auzokideei jakinarazteko, ohiko bideetatik.

25. artikulua

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebazti ostean, Foru Aldundiari emaitzaren egiaztatzea bidaliko zaio, onar dezan.

2. Egiaztatzea onartu eta gero, Foru Aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta udalarari bidaliko dizkio, azken horrek dirubilketari ekin diezaion.

Xedapen gehigarria

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta estatu espainiarrak eta Vatikanoak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, ondasun hauek salbuetsita egongo dira:

a) Kultuleku modura erabiltzen diren tenpluak eta kaperak, eta haien bulegoak eta jarduera pastoralerako erabiltzen diren eraikin erantsiak ere bai.

b) Gotzain, kalonje eta arimen ardura duten apaizen egoitza.

c) Bulegoetarako, kuria diozesiarrerako eta parrokia bulegoetarako erabilitako lokalak.

d) Elizbarrutiko kleroaren eta erlijiosoaren prestakuntzarako apaiztegiak eta elizaren unibertsitateak, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.

e) Beren helburu nagusia ordenetako, erlijiosoen kongregazioetako eta biziera sagaratuko institutu etxe edo komentu izatea duten eraikinak.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

TARIFA	KARGA TASA EHUNEKOTAN
Hiri ondasunak	ehuneko 0,40
Landa ondasunak	ehuneko 0,30
Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak (Badaiaiko haize parkea)	ehuneko 1,30

Dirubilketa aldia: urteko 2. seihilekoa.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren 2021eko urtarrilaren 20an. Ordenantza ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga hau arautzen duen foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko tarifak eta ehunekoen taula jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Hiri lursailek zergaldian izan duten balio gehikuntza da zerga gaia, lur horien jabetza edozein tituluz eskualdatzen bada edo horien gainean jabetza mugatzen duen edozein gozatze eskubide erreal eratzten edo eskualdatzen bada.

III. Zergaren pean ez daudenak

4. artikulua

1. Balio gehikuntzak zerga honen aplikazio eremutik kanpo egongo dira, ondasun higiezin gainera zergaren ondorioetarako landakotzat hartzen diren lurrei dagozkienean.

2. Honako hauek ez dira egongo zergapean: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Aurreko apartatuan aipatzen diren kasu berberetan, xedapen bera aplikatuko zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpenak, esleipenak eta eskualdaketei.

Honako hauek ere ez daude zergaren kargapean: ezkontza baliogabetzea, banaketa edo dibortzioa gertatzekotan edo izatezko bikotea amaitzekotan epaiak betetzearen ondorioz ezkontideen artean eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteko kideen artean gertatzen diren ondasun higiezin eskualdaketak, eta seme-alaben alde egiten direnak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondare araubide ekonomikoa gorabehera, hurrenez hurren.

3. Zergapekoa izango da ondasun higiezin gainera zergaren ondorioetarako, ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatutako ondasun higiezinetara bildutako lurren balioa gehitzea.

IV. Salbuespenak

5. artikulua

1. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira egintza hauen ondorioz agerian gertatzen diren balio gehikuntzak:

a) Zortasun eskubideak eratu edo eskualdatzea.

b) Ondasunen eskualdaketak, ondasun higiezin gainera zergaren uztailaren 19ko 2/1989 Foru Arauak 4. artikuluan 1. apartatuaren k) letran jasotzen duen salbuespena aplikagarri dutenean, baldin eta jabeek edo eskubide errealeko titularrek ondasun higiezin horien kontserbazio, hobekuntza edo birgaitzeko lanak egin eta ordaindu dituztela egiaztatzen badute.

2. Balio gehikuntzak zerga honetatik salbuetsita daude, zerga hau ordaintzea honako pertsona edo erakunde hauei dagokienean:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, eta estatuaren erakunde autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Zerga kobratzen duen udalerria eta udalerririk osatzen dituen edo haren osakide diren gainerako udal entitateak, bai eta haien zuzenbide publikoko entitateak ere, Estatuaren erakunde autonomoen pareko izaera dutenak.

c) Ongintzaketak edo irakaskuntza eta ongintzaketak izendatutako erakundeak.

d) Gizarte segurtasun, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten entitateak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuta daudenak.

e) Administrazio emakiden titularrak, baldin eta emakida horiek eragindako lursailak berriro aplikatzea badago.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena onartuta duten pertsonak eta erakundeak.

V. Subjektu pasiboak

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

a) Lurren eskualdaketetan edo jabariko irabazizko gozamen mugatzaileen eskubide errealeen osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala horien alde osatzen edo eskualdatzen bada.

b) Lurren eskualdaketetan edo jabariko kostu bidezko gozamen mugatzaileen eskubide errealeen osaketan edo eskualdaketan, pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra besterentzen badute, edo eskubide erreala osatzen edo besterentzen badute.

2. Aurreko apartatuko b) letrak aipatzen dituen kasuetan, honako hauek hartuko dira zergadunaren subjektu pasibotzat: pertsona fisikoa, juridikoa eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziak, baldin eta lurra eskuratu eta eskubide erreala haren alde osatzen edo eskualdatzen bada, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

3. Hipoteka zordunaren edo bere bermatzailearen ohiko etxebizitza kreditu entitate baten alde edo profesional moduan hipoteka kreditu edo maileguak emateko jarduera egiten duen edozein entitatearen alde ordainetan ematearen edo epaileak nahiz notarioak hipoteka betearaztearen ondorio diren eskualdaketetan, higiezia eskuratzen duen entitatea hartuko zergadunaren ordezkotzat, eta ordezkotzak ezin diezaioke eskatu betetako zerga eginbeharren zenbatekoa zergadunari.

Apartatu honen ondorioetarako, berdin tratatuko dira hipoteka zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematean, zordunaren ohiko etxebizitza erosteko zorren bermerako abal-emaile izaerarekin egiten bada.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioak sor daitezten, beharrezkoa da zordun edo bermatzaile eskualdatzaileak, abal-emaileak edo bere familia unitateko beste edozein kidek ez edukitzea hipoteka zor osoa estali ahal izateko adinako beste ondasun edo eskubiderik, etxea besterentzea ekidin litekeen unean. Eskakizun hau betetzen dela ulertuko da.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikulua 8. apartatua jasotakoa.

Familia unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Ondorio horietarako, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legeari jarraituz eraturako izatezko bikoteak ezkontzaren izaera bera izango du.

VI. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria lurren balio gehikuntza da, sortzapen unean azaldua eta gehienez ere 20 urtean metatua.

Zerga oinarria zehaztearen ondorioetarako, kontuan hartu behar da lursailak sortzapenaren unean daukan balioa, artikulua honen 2. apartatua xedatutakoarekin bat, eta eranskinean jasotako eskalaren ehunekoa.

2. Lurrek sortzapen unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, lursailek sortzapen egunean duten balioa une horretantxe ondatsun higiezinaren gaineko zergarako ezarrira dagoen berbera izango da.

Hala ere, babes publikoko etxebizitzaren araubidean dauden higiezinetakoko lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio salmenta prezioari.

b) Jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzean eta eskualdatzean, artikuluko honetako 3. apartatuko urteko ehunekoak aurreko letran zehaztutako balioaren partearen gainean aplikatuko dira. Parte hori aipatutako eskubideen balioaren adinekoa izango da eta balio horren zenbatekoa ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

c) Eraikin edo lursail baten gainetik solairu bat edo gehiago jasotzeko, edo lur azpitik eraikitzeko eskubidearen sorreran eta eskualdaketen –lurrazal eskubide errealek izan gabe ere–, artikuluko honetako 4. apartatuko urteko ehunekoak aplikatuko dira, hain zuzen ere, aurreko a) letran zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketen eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluaren adinakoa, eta hori ezin bada, gorantz edo lur azpian eraikitzeko diren solairuen zabalera edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoak zehaztu ondoren aterako dena, solairuak eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzetan, lurzorua balioespenaren zatiari ezarriko zaizkio artikuluko honetako 3. apartatuko urteko ehunekoak, 2. apartatuko horren a) letran zehaztutako balioa txikiagoa izan ezean. Kasu horretan, balio hori hartuko da ontzat eta ez balioespenaren zatia.

3. Sortzapenaren uneko lursailaren balioari (aurreko 2. apartatuan xedatutakoak eraginda) eranskineko eskalan agertzen den urteen arabera ehunekoak aplikatuko zaio.

3. apartatuan aipatutako ehunekoak zehazteko, arau hauek bete behar dira:

1º. Zergak kargatutako eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza zehazteko, kontuan hartuko da gehikuntza hori gertatu den urteetarako udalak ezartzen duen urteko ehunekoak.

2º. Sortzapen unean lurraren balioaren gainean aplikatu beharreko ehunekoak hauxe da: kasu bakoitzean aplikatu beharreko urteko ehunekoak bider balio gehikuntza gertatu den urte kopurua.

3º. Eragiketa bakoitzari aplikatu beharreko urteko ehunekoak lehenengo araua betez zehazteko, eta bigarren araua betez urteko ehuneko hori zenbat bider (urteak) biderkatu behar den zehazteko, balioaren gehikuntza azaldu behar den aldiko urte osoak hartuko dira kontuan, eta ez urte zatiak.

VII. Zerga kuota

8. artikulua

Zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honen kuota osoa.

Hobariak:

1. Zerga honen subjektu pasiboek zergaren kuotan hobaria izango dute hurrengo ataletan zehaztutako baldintzetan.

Hobaria:

Hobaria zergaren kuota osoaren ehuneko 90 izango da, bai lurak eskualdatzean, bai jabetza mugatzen duten gozamen eskubide errealek heriotzagatik kosturik gabe eratzean edo eskualdatzean ondorengo nahiz adoptatuen alde, ezkontideen edo egitatezko bikotekideen alde —Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorrira sortutako egitatezko bikoteak— eta aurreko ahaideen nahiz adoptatzaileen alde.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu beharko du zuzenean, eskubide horiek eratzea edo eskualdatzea egiaztatzen duen titulua aurkeztu eta sei hilabeteko epean.

Hobaria dagoen kasuetan, zergaren kuota likidoa, kuota osoari 5. artikuluan aipatzen den hobaria aplikatuta, hala badagokio, ateratzen den emaitza izango da.

VIII. Zergaren sortzapena

9. artikulua

1. Zerga sortzen da:

a) Eskualdaketa egunean, lurraren jabetza bizien artean edo norbaiten heriotzaren kausaz eskualdatzen bada, kostu bidez nahiz doan.

b) Jabaria mugatzen duen gozatzeko eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean, eratzea eta eskualdaketa gertatzen den garaian.

Aurrekoaren ondorioetarako, hauxe izango da eskualdaketa eguna:

a) Inter vivos egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna; agiria pribatua bada, erregistro publiko batean sartzen edo inskribatzen den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela-eta ematen zaion eguna.

b) Heriotzak eragindako eskualdaketa, eragilea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozatzeko eskubide erreala eratzea edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz baliogabetu, deuseztatu edo bukarazten badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekartzen ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera. Interesatuak Kode Zibilaren 1.295. artikuluan aipatutako itzulketak elkarri egin behar dizkiotela justifikatu ezean, irabazteko asmorik badagoela uste izango da. Egintzak edo kontratuak kostu ondorioz izan ez arren, hutsalketa edo suntsiarazpena adierazten bada zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez dituelako bete, ez da inolako itzulketarik egin beharrik izango.

3. Alderdi kontratatzaileek adosten badute kontratua ondorerik gabe uztea, ez da itzuli beharko ordaindutako zerga, eta zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa bai demandari amore ematea.

4. Egintzak edo kontratuak baldintzaren bat badauka, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko da. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko baldintza bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, Zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko apartatuko arauari jarraituz eginez gero.

Testamendu ahalorde edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga sortuko da ahalordea edo gozamen ahaldua modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura azkentzen duen arazoietariko bat izaten denean.

5. Baldin eta gozamen ahalduetan edo testamentu ahalordeetan pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, ondorengotza zabaltzean sortuko dena, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

Baldin eta gozamen ahalduetan edo testamentu ahalordeetan gozamina azkentzen bada gozamen ahaldu edo testamentu ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehenengo likidazioa, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Dena den, testamentu ahalordeak epe jakin bat balu gauzatzeko, lehenengo likidazioa aldi baterako gozamenei buruz ezarritako arauak betez egingo da ahal hori egikaritzeko ezarri den gehienezko epean.

b) Beste likidazio bat, gozamen ahaldua edo testamentu ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada. Aurreko b) letran aipatzen den likidazio hori eta gozamen ahaldua edo testamentu ahalordea erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

6. Xedapen egintzen ondorioz, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz baliatu zain dauden herentzietan dagozkien lurren eskualdaketei, Euskal zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapenik, foru arau honetan ezarritako xedapen orokorrak aplikatuko zaizkie, honako berezitasun hauekin:

a) Aurreko apartatuan aipatzen diren eskualdaketei dagokienez, zergaren subjektu pasibotzat joko da testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabili zain dagoen herentzia, eta zergaren sortzapena eskualdaketa unean gertatuko da.

b) Zergaren tributu kuota zehazteko, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin, eskualdaketa unean gertatuko dena, eta gozamendunak likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuko da, hori guztia Foru Arau honen 6. artikuluko 5. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz baliatu zain dagoen herentziak eskuratutako lurren eskualdaketa egiten direnean, xedapen egintzen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, likidazio bat egingo da kausatzaileak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren arabera sortzapenarekin.

c) Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua modu ezetzazinean erabiltzen baldin bada edo hori azkentzeko arrazoiren bat gertatzen baldin bada, eta, ondorioz, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak eskuratutako lurren eskualdaketa gauzatzen denean, xedapen egintzen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, biziarteko edo aldi baterako gozamenari buruzko arauen pean, testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua noiz erabiliko zain dagoen jaraunspenak lurra eskuratu zuenetik igaro den denboraren ondorioz gozamenak daukan izaeraren arabera. Likidazioa eta testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

d) Zerga honen ondoretarako, honako xedapen hauek izango dira aplikagarri: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, bere hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren hirugarren idatz zatian jasotako xedapenak, hain zuzen.

IX. Kudeaketa

10. artikulua

Subjektu pasiboek zerga aitortpena aurkeztu beharko diote udal administrazioari, udalak berak emandako eredu ofizialari jarraituz; eredu ofizial horretan zerga harremanaren elementuak eta likidazioa egiteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiak egon beharko dira. Aitortpena aurkezteko egintza berean kuotaren ordainketa egin beharko da.

11. artikulua

Aitortpena aurkezteko eta ondorio duen kuota ordaintzeko epe hauek hartu beharko dira kontuan, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita:

a) Inter vivos egintzak direnean, epea 30 egun baliadunekoa izango da.

b) Heriotzaren kausazko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izango da, urtebetera ere luza daitekeena subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

12. artikulua

1. Aitorpenarekin batera, ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak zehazki azaltzen dituen agiri kauto bat aurkeztu behar da.

2. Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiri bidez frogatu beharko dira.

13. artikulua

Zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak hogeita hamar eguneko epean aurkezteko eskatu ahal izango die udal administrazioak interesdunei; interesdunak eskatuz gero, beste hamabost egunez luzatu daiteke epea. Egindako eskaerei epe horien barruan erantzuten ez dietenek, dagozkien zergen alorreko arau hauste eta zehapenak izango dituzte, aipatutako agiriak aitorpena egiaztatze beharrezkoak diren neurrian. Adierazi diren agiri horiek interesdunak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze bitarteko hutsak izanez gero, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

14. artikulua

10. artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, honako hauek ere subjektu pasiboentzat jarritako epe beretan emango diote zerga egitatearen berri udal administrazioari:

a) Zerga ordenantza honetako 6.1 artikulua a) letran jasotako egoeretan, intervivos negozio juridikoen kasuan, eskubide erreala osatu edo eskualdatzen duen emaille edo pertsona.

b) Aipatutako 6.1. artikulua b) letran jasotako kasuetan, eskuratzailerak edo eskubide erreala haren alde eratu edo eskualdatzen den pertsona.

15. artikulua

Era berean, hiruhileko naturalaren lehenengo hamabostaldian, notarioek aurreko hiruhileko naturalean baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote udal administrazioari. Zerrenda horretan, udalerrian zerga egitatea gauzatu dela adierazten duten ekitaldi, egintza eta negozio juridikoak jasoko dira, azken borondateari loturikoak izan ezik. Halaber, sinadurak aintzateste edo legeztatze aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute epe beraren barruan. Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragozten Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorra.

Notarioek Udalarari igorritako zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi behar dute, erreferentzia hori bat datorrenean eskualdatu nahi direnekin.

Notarioek, baimentzeko agiritan, berariaz ohartarazi beharko dizkiete bertaratuei interesdunek zergaren aitorpena aurkezteko duten epea eta aitorpenak ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunak.

16. artikulua

1. Baldin eta udal administrazioak badaki zerga egitateak gauzatu direla eta horiek ez badira deklaratu, interesdunei aitorpen hori egiteko eskatuko die, 13. artikuluan ezarritako epeen barruan; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirarteke.

2. Udal administrazioak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagozkien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziosko espedientea bideratuko da, eskueran dituzten datuez baliatuz, eta dagozkien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekurtsioak adierazita, hala badagokio; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirarteke.

Xedapen gehigarria

9.1. artikuluan xedatukoaren ondorioetarako eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga onartzen duen araudian (martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua eta Zergaren Arautegia onartzen duen abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretua) ezarritakoaren arabera, honako hauek bete beharko dira:

1. Gozamen eskubidearen balioa:

a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, urtean ehuneko 2, gehienez ehuneko 70.

b) Biziarako gozamenaren balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70 dela joko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa; hain zuzen ere, ehuneko gutxiago urte bakoitzeko. Muga, betiere, balio osoaren ehuneko 10 izango da.

c) Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamina 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza suntsiarazlearen menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketzat joko da zerga ordainketarako.

2. Jabetza soilaren eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza hutsa lehenengo puntuko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuz kalkulatu da.

3. Erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubide errealeen balioa honela kalkulatu da: eskubide horien karga ezarri zaien ondasunen balioaren ehuneko 75 aldi baterako edo biziarako gozamenen balorazioaren gaineko arauak aplikatuz, kasuan kasu.

Hiri lurren balioaren gehikuntza zehaztea.

Bat. Zerga ordaintzeko betebeharra sortzeko ezinbestekoa izango da lurren balioaren gehikuntza egon izana. Gehikuntza hori agerian jartzen da lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo lurren gaineko edozein gozamen eskubide erreal, jabaria mugatzen duena, osatzen edo transmititzen denean, eta xedapen gehigarri honen arabera zehaztuko da.

Bi. Aurreko letran xedatutakoaren ondorioetarako, lurren balio gehikuntzarik badagoen ala ez zehazteko, konparatu egingo dira jabetza eskuratu zen balioa (edo, hala dagokionean, jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealearen eratzeko edo eskuratzeko balioa) eta haren eskualdatze balioa (edo, hala dagokionean, jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealearen eratzeko edo eskualdatze balioa).

Aurreko lerroaldean aipatzen diren balioak hauek izango dira: kontuan hartzen direnak edo, hala denean, kontuan hartu behar liratekeenak, lurren jabetzaren eskualdaketa edo lurren gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa kargapean jartzen duten zergen ondorioetarako.

Gauzak horrela, gerta daiteke lurren balioaren gehikuntza izan dela edo izan ez dela ezin egiaztatzea bigarren apartatu honetan ezarritakoaren arabera; halakoetan, beraz, erreferentziatza hartuko da kasu bakoitzean dagokion balio erreala.

Apartatu honetan aipatzen diren balioei ez zaie inolako gastu, hobekuntza edo bestelako kontzepturik gehituko, eta ez da inolako eguneratzerik egingo igarotako denborarengatik.

Gerta daiteke bigarren apartatu honetan aipatutako lurren balioaren gehikuntza zehazteko erreferentziatza hartutako balioetan beren-beregi ez bereiztea eraikuntzari dagokion balioa eta lurrari dagokiona; halako kasuetan, erreferentziatza hartuko da zerga hau sortzeko unean indarrean dagoen katastro balioaren proportzioa, lurzorua balio katastroarena eta eraikuntzaren balio katastroarena.

Hiru. Aurreko 2. apartatuak aipatzen dituen balioak zehazteko datak honako hauek izango dira: lurra erosteko datari dagozkionak edo, hala denean, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreala osatzeko edo erosteko datari dagozkionak; eta lurra eskualdatzeko datari dagozkionak edo, hala denean, jabaria mugatzen duten gozamen eskubide erreala osatzeko edo eskualdatzeko datari dagozkionak.

Lau. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera luraren balio gehikuntzarik ez badago, etorkizunean egiten diren eskualdaketetarako, aintzat hartuko dira geroko eskualdatzaileak luraren erosketa eta eskualdaketa egiten dituen uneetako balioak.

Bost. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera lurren balioaren gehikuntzarik ez badago, Foru Arau honen 7. artikuluan ezarritako betebeharrak formalak ere bete beharko dira.

4. Hiri lurren balioaren gehikuntza zehazteko, hauek hartuko dira kontuan: Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 1eko 37/2017 epaia, Auzitegi Gorenaren uztailaren 9ko 1163/18 epaia, martxoaren 28ko 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua (apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk.), apirilaren 12ko 8/2017 Foru Arauak baliozkotua (maiatzaren 3ko ALHAO, 49. zk.) eta horren inguruan arautzen diren gainerako xedapenak).

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

I. Ehunekoaren taula

ALDIA	URTEKO EHUNEKOA
a) 1-5 urte	ehuneko 3,7
b) 10 urte arte	ehuneko 3,5
c) 15 urte arte	ehuneko 3,2
d) 20 urte arte	ehuneko 3,0

II. Tarifa

Karga tasa

ehuneko 17

Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren 2021eko urtarrilaren 20an. Ordenantza ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu, zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoarekin bat etorritz, ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zeinaren parte baita aplikatzeko tarifen taula daukan eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Hauek dira zerga egitate:

1. Bide publikoan ibiltzeko egokiak diren eta trakzio mekanikoko ibilgailu direnen titular izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2. Behar den erregistro publikoetan matrikulatutako ibilgailuak zirkulaziorako erabilgarritzat joko dira bazarik eman ezean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko erabilgarritzat joko dira.

3. Honakoak ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatuetan ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuak tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg-arterainoko zama erabilgarria dutenak.

III. Salbuespenak eta hobariak

4. artikulua

1. Zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsarako edo herritarren segurtasunerakoak.

b) Ordezkaritza diplomatiko eta kontsulatuen ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetako funtzionario kreditatuenak, haiek dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuek kanpotik identifikatuta egon beharko dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari eta bai neurriari dagokionez.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko anbulantziak eta gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorrak II. eranskinaren A idatz zatian aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, ezinduen izenean matrikulatuta daudenak.

Era berean, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten ibilgailuak, ezgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta daudenak eta haiek bakarrik erabiltzeko direnak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Orobat, zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboak ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

a) Ehuneko 33 eta ehuneko 65 bitarteko minusbaliotasun gradua aitortua duten pertsonak, mugitzeko gaitasuna murriztuta dutenak. Halakotzat joko dira Ezintasun gradua aitortu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedurari buruzko Errege Dekretuak (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) III. Eranskinean jasotzen duen baremoko a, b edo c letretan adierazitako egoeretako batean daudenak edo baremo horretako d, e, f, g edo h letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak.

b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun gradua duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan sartuta dauden pertsonen izenak ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoko a letrako mugitzeko gaitasun murriztuko egoeretako batean badaude eta ibilgailua gorpil aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako ikuskapenaren txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

2. Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenez gozatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dituzte, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta hoberiaren arrazoia adieraziz. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

Aurreko 1. apartatuko e) letraren bigarren paragrafoan jasotako salbuespena dela eta, interesdunak ezintasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, eta, hala behar izanez gero, mugikortasun urriko egoerarena ere bai, kasuan kasuko organoak emana, eta Iruña Okako Udalean justifikatu ibilgailuaren erabilera. Adierazi beharrekoa da ezen interesatuak, goian adierazitako ziurtagiriaz gain, eta dagokion eskabidearekin batera, ibilgailuaren zirkulazio baimena aurkeztu beharko duela; eta, ibilgailua bere erabilera eskusiborako bada, gidabaimenaren kopia aurkeztuko du. Ibilgailua bera garraiatzeko bada, gainera, eskabidean, gidariaren izen-deiturak eta NANA eta gidabaimenaren kopia eman beharko ditu, eta hark ere ezinduaren bizitokian egon beharko du erroldaturik.

Ez bada salbuespena eskatzen ibilgailuaren altarekin batera, salbuespena eman eta urtebetera sartuko da indarrean.

IV. Subjektu pasiboak

5. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimenean, bai eta testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta Foru Arau honen 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

V. Kuota

6. artikulua

1. Eranskinean jasota dagoen tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela plazak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modelo funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailuak autobusa balitz bezala ordainduko du, bederatzi pertsona baino gehiago (gidaria barne) garraiatzeko prestatuta badago.

Bigarrena. Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoin kasuan, duten edukiera dela-eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako gai joko dira industria ordezkariak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden unetik.

e) Makina autopropulstakuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenek, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, tarifen d) letran azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

Zerga honen ondorioetarako, autokarabanez turismoen zergak ordainduko dituzte.

Hobariak:

1. Zerga honen subjektu pasiboek zergaren kuotan hobaria izango dute hurrengo ataletan zehatutako baldintzetan.

2. Hobaria zergaren kuota osoaren gainean aplikatuko da, bizikidetzaren unitatearen diru sarre-
ren arabera. Kontuan hartuko dira taula hau, eta hobari bakoitzaren atalean dagoena:

HOBARIARI APLIKATUKO ZAION EHUNEKOA	DIRU SARRERAK
ehuneko 100	20.000 euro, gehienez
ehuneko 75	20.000 euro eta 30.000 euro bitartean
ehuneko 50	30.000 euro eta 40.000 euro bitartean
ehuneko 25	40.000 euro eta 60.000 euro bitartean
ehuneko 0	60.000 euro baino gehiago

Taulako errenta tarteak eta ehunekoak aplikatzeko bizikidetza unitateko kide guztien errenta guztiak batuko dira.

Aurreko apartatuan aipatutako errenta zehazteko pertsona fisikoen errentaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeke balio duen beste edozein informazio.

Ondorio hauetarako, apartatu honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urtearen aurreko urtean lortutako errentak hartuko dira aintzat.

Ondorio hauetarako, apartatu honetan aipatutako hobaria aplikatuko den urteko azken errenta aitortpena hartuko da aintzat.

Hobariak ez dira bateragarriak.

Familia ugariengatiko hobaria.

1. Zerga kuotaren ehuneko 25eko hobaria bost leku edo gehiagoko ibilgailuen alde, baldin eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, familia ugariko kideren bat horren jabea bada. Gainera, ezingo dute jarraian zehazten den errenta gainditu, eta hobaria emateko baldintzak mantendu beharko dituzte. Familiako ibilgailu bakar batek izango du hobaria.

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
25	25	18,75	12,50	6,25	0

Subjektu pasiboak egin behar du hobariaren eskaera, eta eskaera horrekin batera honakoak aurkeztu behar ditu:

- Hobaria eskatzeko idazkia. Eskaera horretan, ibilgailua zein den adieraziko da.
- Familia ugariaren egiaztagiria, edo familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua.
 - Udal erroldaren egiaztagiria.
- Bizikidetza unitatea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, aurreko ekitaldikoa.
- Ibilgailuen azterketa teknikoaren indarreko agiria.

Hobariak gozatzeko epea urtebetekoa izango da, nahiz eta subjektu pasiboak epe hori luzatzeko eskatu ahal izango duen hobaria bukatzen den urtearen barruan. Horretarako, araututako baldintzak batera eman behar dira. Edonola ere, hobaria ofizioz iraungiko da, subjektu pasiboak familia ugariko titularra izateari edo aipatutako baldintzaren bat betetzeari utzi eta hurrengo urtean.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu behar du urte horretako martxoaren 31 baino lehen. Hala izango ez balitz, hobari horiek datorren ekitalditik aurrera emango dira; beti ere, ordenantza honetako xedapenak aldatzen ez badira.

2. Ehuneko 50eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek eta, gutxienez, hogeita bost urte dituztenek. Noiz egin zen ezagun ez bada, lehenengo matrikulatzea hartuko da hartakotzat, edo bestela, ibilgailu mota hori edo aldaerak egiteari utzi zitzaion data.

GEH.	EHUNEKO 100	EHUNEKO 75	EHUNEKO 50	EHUNEKO 25	EHUNEKO 0
50	50	37,50	25	12,50	0

Hobari hau eskatu beharko da eta, haren onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Ibilgailu horien titular nagusiak hobariaren onuradun izan behar du.

2. Ibilgailuen azterketa teknikoaren indarreko agiria.

Hobaria subjektu pasiboak eskatu behar du urte horretako martxoaren 31 baino lehen. Hala izango ez balitz, hobari horiek datorren ekitalditik aurrera emango dira.

VI. Zergaldia eta sortzapena

7. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo Trafiko Buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen denean, Zergaren kuota eskuraketa egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuraketa egunetik baja eman arteko aldiaren proportziozkoa, kasuan kasukoa.

4. Ibilgailu bati baja ematen zaionean, zergaren kuota urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitzari dagokion udalaren egitekoak dira zerga hau kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta Zergaren kudeaketan ematen diren egintzak berrikustea.

9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehen seihilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

12. artikulua

Matrikulazioa berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun baliouduneko epean:

- a) Zirkulazioko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFK.

13. artikulua

1. Trafiko Buruzagitzan matrikulazioa eskatzen dutenek, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, aldeztatik egiaztatu beharko dute zerga ordaindu izana.

2. Ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari aldeztatik frogatu beharko diote aurkeztu zaizen azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatzen badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote.

Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatu-tako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

3. Trafiko Buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldez aurretik zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

Tarifa

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA
A) Autoak:	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	13,45 euro
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	36,34 euro
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	76,71 euro
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	114,67 euro
20 zaldi fiskal baino gehiago	149,33 euro
B) Autobusak:	
21 eserleku baino gutxiago	88,84 euro
21 eta 50 eserleku bitartean	126,51 euro
50 eserleku baino gehiago	158,15 euro
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarria: 1.000 kilogramo baino gutxiago	45,09 euro
Zama erabilgarria: 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	88,84 euro
Zama erabilgarria: 2.999 kilogramo baino gehiago eta 9.999 kilogramo bitartean	126,51 euro
Zama erabilgarria: 9.999 kilogramo baino gehiago	158,15 euro
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	18,84 euro
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	30,53 euro
25 zaldi fiskal baino gehiago	88,84 euro
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak:	
1.000 kg baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	18,84 euro
1.000 eta 2.999 kg arteko karga erabilgarria	30,53 euro
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	88,84 euro
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	4,72 euro
125 cm ³ edo gutxiagoko motozikletak	4,72 euro
125 cm ³ baino gehiago eta 250 cm ³ arteko motozikletak	8,07 euro
250 cm ³ baino gehiagoko eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	16,15 euro
500 cm ³ baino gehiagoko eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	32,31 euro
1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak:	64,61 euro

Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren 2021eko urtarrilaren 20an. Ordenantza ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza

1. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz, eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik tasak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga egitatea, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortua izan delako.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozaten badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; horiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraiketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeenek.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. Kuota

9. artikulua

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Lurralde Historikoko zergen foru arau orokorrak xedatutakoa aplikatuko da.

X. Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean izango da Iruña Okako Udalak hura behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratzen denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero.

Ordenantzaren eranskina

“Zerbitzu publikoak eskaintzearen eta jarduerak egitearen tasak”

Banakako eskolak: 209,40 euro ikastaroko.

(Musika tresna eta musika hizkuntza).

1.2. Musika irakaskuntza: Ingeles irakaskuntza: udalak antolatu eta gizarte zein kultura etxean ematen diren ingeles ikastaroetara joateagatik.

Ingelesa, haurrentzat:

a) 1 ordu/aste: 21,47 euro hiruhileko.

b) 1,5 ordu/aste: 32,22 euro hiruhileko.

1.3. Euskara irakaskuntza: 114,38 euro ikastaroko.

II. epigrafea. Kirol jardueren zerbitzua:

Udalak antolatutako ikastaroetara joatea:

2.1. Gupil gaineko irristaketa, haurrentzat: 18,24 euro hiruhileko.

2.2. Haurrentzako hockeya, hastapenak: 18,24 euro hiruhileko.

III. epigrafea. Ludoteka zerbitzua:

3.1. Ludoteka:

a) saio 1: 15,47 euro hiruhileko.

b) 2 saio: 20,62 euro hiruhileko.

3.2. Ludokluba: 21,47 euro hiruhileko.

3.3. Gazte kluba: Doan.

IV. epigrafea. Hainbat jarduera:

4.1. Eskulan lantegia: 35,44 euro hiruhileko.

4.2. Kakorraz eta puntu lantegia: 15,60 euro hiruhileko.

4.3. Antzerki lantegia: 26,00 euro hileko.

4.4. Euskal dantzak: doan.

4.4. Sevillanak: 27,77 euro hiruhileko /ordubete.

41,66 euro hiruhileko / ordu eta erdi.

4.5. Dantza flamenkoa: 27,77 euro hiruhileko.

4.6. Abesbatza: 26,83 euro hiruhileko.

4.7. Zure eskuekin sortzen ikasi lantegia: 13,30 euro hiruhileko.

4.8. Josteko makinarekin josteko ikastaroa: 20,80 euro hiruhileko.

4.9. Batukadako ikastaroa: 15,00 euro hileko.

Iruña Okako udalerrian erroldatuta ez daudenen kuotek ehuneko 50eko gehikuntza izango dute.

Musikako banakako saioen kasuan, Iruña Okan erroldatuta ez daudenek, banakako saioaren ehuneko 100 ordaindu beharko dute.

Kuotak KPlaren arabera gehituko dira urtero.

V. epigrafea. Igerileku publikoen zerbitzua:

Zerga egitea: udal igerilekuetako instalazioak erabiltzeak zerga ordaindu beharra eragingo du.

Arrateclub-en tarifak

1. Arrateclub igerilekua.

Instalazioetara, igerileku estalira eta udako igerilekura sartzea.

Matrikula: bi hilabeteko kuota, doan urteko harpidetzarekin.

ARRATECLUB	KUOTA		UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA	
	HILEKOA	URTEKOA	HILEKOA	URTEKOA
Helduak	24,20 euro	290,40 euro	10,00 euro	120,00 euro
Masterra/Ezinduak	19,36 euro	232,32 euro	9,68 euro	116,16 euro
Gazteak	16,94 euro	203,28 euro	8,46 euro	101,52 euro
Haurrak	12,10 euro	145,20 euro	— euro	— euro

2. Arrateclub oinarrizkoa.

Instalazioetara, igerileku estalira eta udako igerilekura sartzea.

Fitness gelara sartzea.

Matrikula: bi hilabeteko kuota, doan urteko harpidetzarekin.

ARRATECLUB	KUOTA		UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA	
	HILEKOA	URTEKOA	HILEKOA	URTEKOA
Helduak	31,09 euro	373,08 euro	21,50 euro	258,00 euro
Masterra/Ezinduak	25,91 euro	310,92 euro	17,20 euro	206,40 euro
Gazteak	25,91 euro	310,92 euro	17,20 euro	206,40 euro

3. Arrateclub aqua.

Instalazioetara, igerileku estalira eta udako igerilekura sartzea.

Fitness gelara sartzea.

Hiri bainuetxera (Ur Etxea) sartzea.

Matrikula: bi hilabeteko kuota, doan urteko harpidetzarekin.

ARRATECLUB	KUOTA		UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA	
	HILEKOA	URTEKOA	HILEKOA	URTEKOA
Helduak	48,40 euro	580,80 euro	35,40 euro	424,80 euro
Masterra/Ezinduak	28,72 euro	344,64 euro	20,00 euro	240,00 euro

4. Arrateclub igerilekua/oinarrizkoa/aqua.

Jardueren kuota: Ez daude barnean jarduera espezializatuak.

UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA		
	HILEKO KUOTA	UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA
1 eskola/aste	7,26 euro	3,00 euro
2 eskola/aste	13,31 euro	6,00 euro
3 eskola/aste	18,15 euro	9,00 euro
Eskola guztiak	24,20 euro	12,00 euro

5. Arrateclub express.

Ordutegi mugatua: astelehenetik ostiralera, 13:00 - 16:00.

Instalazioetara, igerileku estalira eta udako igerilekura sartzea.

Fitness gelara sartzea.

Hiri bainuetxera (Ur Etxea) sartzea.

Matrikula: bi hilabeteko kuota, doan urteko harpidetzarekin.

ARRATECLUB	KUOTA		UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA	
	HILEKOA	URTEKOA	HILEKOA	URTEKOA
Helduak	20,00 euro	240,00 euro	20,00 euro	240,00 euro

6. Arrateclub Plus +

Instalazioetara, igerileku estalira eta udako igerilekura sartzea.

Fitness gelara, jarduerak (ez daude sartuta jarduera espezializatuak).

Hiri bainuetxera (Ur Etxea) sartzea.

Matrikula: bi hilabeteko kuota, doan urteko harpidetzarekin.

ARRATECLUB	KUOTA		UDALAREN KIROL BAZKIDEAREN KUOTA	
	HILEKOA	URTEKOA	HILEKOA	URTEKOA
Helduak	51,82 euro	621,84 euro	38,00 euro	456,00 euro
Masterra/Ezinduak	31,09 euro	373,08 euro	25,00 euro	300,00 euro
Gazteak	31,09 euro	373,08 euro	25,00 euro	300,00 euro

7. Jarduera espezializatuak.

Jarduera espezializatuak dira: pilates eta bizkar osasuntsua.

Haurren jardueretan prezioa ikastaroko izango da.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren 2021eko urtarrilaren 20an. Ordenantza ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Erabilera publikoko lursailak, irabazteko asmoarekin, mahaiekin, aulkiekin eta osagarriekin okupatzeagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantza

1. artikulua. Oinarria eta izaera

Espainiako Konstituzioaren 133.3 artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 15.etik 19.era bitarteko artikuluek eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren ... artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz, Udal honek tasa hau ezarri du: Erabilera publikoko lursailak mahai, aulki eta irabazizko beste elementu osagarri batzuen bidez okupatzeagatiko tasa.

2. artikulua. Zerga egitatea

Tasaren zerga gaia da jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia, irabazteko xedez erabilera publikoko lurra mahai, aulki eta ordenantza honen eranskinean jasotako bestelako osagarriekin okupatzeagatik.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, lizentzia ematen zaien pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Lege Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren entitateak, edo, behar den baimenik gabe jardunez gero, aprobetxamenduaren onuradunak.

4. artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga betebeharrangatik era solidarioan erantzungo dute Zergei buruzko Lege Orokorraren 38.1 eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek.

Erantzule subsidiario izango dira sozietateen administratzaileak eta porrot, lehiaketa, sozietate eta, oro har, entitateetako sindiko, kontu hartzaile edo likidatzaileak, Zergei buruzko Lege Orokorrak 40. artikuluan adierazitako egoeretan eta helmenarekin.

5. artikulua. Zerga kuota

Ordenantza honetan araututako tasaren zenbatekoa da eranskinean jasotako tarifen arabera ateratzen dena.

6. artikulua. Sortzapena

Ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra noiztik sortzen den:

Bide publikoa aprobetxatzeko eskabide berria izanez gero, dagokion baimena ematean sortuko da ordaindu beharra.

Dagoeneko baimendutako aprobetxamenduak badira, urte natural bakoitzeko urtarrilaren batean.

Okupazioa edo aprobetxamendu berezia beharrezko baimena eskatu gabe egin bada, tasaren sortzapena okupazio hori hasi zenean hasiko da.

7. artikulua. Dirubilketa

Tasa honela ordainduko da:

a) 1,a) puntuan jasotako kasuetan, sarrera zuzenean eginez udaleko diruzaintzan, dagokion baimena eskatzean.

Sarrera horrek aurretiazko gordailuaren izaera edukiko du, abenduaren 28ko 39/88 Legearen 26.1-a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz; udal baimena ematean bihurtuko da behin betiko.

b) 1,a) puntuan jasotako kasuetan, eta errolda edo matrikuletan sartu ostean, udal diruzaintzan sartuz urte natural bakoitzaren lehenengo hilean.

8. artikulua. Kudeaketa arauak

1. Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduak jasotzeko interesa duten pertsonak edo erakundeek horretarako baimena eskatu beharko dute aldezturik. Eskaeran zehaztu beharko dira okupatzeko den azalera, kokapena eta instalatuko diren elementuak. Udalaren zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute eskaera eta okupatzeko aukera bat datozen.

2. Zerga ordaindu beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoa erabiltzeko eskubidea ezin izan bada gauzatu, itzuli egingo da sartutako zenbatekoa.

3. Okupazioa egiten ez da utziko interesdunek aurreko artikuluan aipatzen den aurretiazko gordailua ordaindu eta dagokion baimena lortu arte.

4. Emandako baimenak likidatuko dira eman diren egunetik ekitaldi ekonomikoa amaitu arte, eta gero okupazio guztien gainean egin beharko den erroldan sartuko da.

5. Okupazioa baimenduta dagoenean, luzatutzat joko da interesdunak iraungitzea erabakitzen ez duen edo baja emateko eskatzen ez duen bitartean. Baja adierazpenaren ondorio ekonomikoak aurkezten den urteko abenduaren 31tik aurrera izango dira.

6. Beharrezkoa den aurretiazko udal baimenik gabeko aprobetxamenduak ofizioz likidatuko dira, gutxienez tarifetan ezarritako urtebeteko aldirako, edozein dela ere aprobetxamendua hasten den eguna eta aldia amaitzeko falta den denbora, eta horrek ez du eragozten zerga ordenantzak hausteagatik dagozkion zehapenak jartzea.

9. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak

Zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta horietako bakoitzari dagokion zehapenari buruzko guztian, Zergen Foru Arau Orokorren 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

ERANSKINA

TARIFA

Kafetegiko edo antzeko establezimenduko mahai bakoitzeko: 10 euro.

Kafetegiko edo antzeko establezimenduko aulki bakoitzeko: 3 euro.

Itzalkin, itzalpe edo beladore bakoitzarengatik, 4 m² gainditu gabe: 2 euro.

Tribuna, tenplete, oholtza, plataforma edo antzeko bakoitzarengatik, m²-ko eta eguneko: 4 euro.

Toldoak, herri bideetan oinarriak dituzten itzala emateko instalazioak, nahiz eta euskarriaren hasiera fatxadan izan, m²-ko eta urteko: 10 euro.

Zolak, parabanak, trenkadak, saretak eta itzala egiteko hegali ez duten antzekoak, urteko: 15 euro.

Zutabe, zutoin edo publizitaterako antzekoengatik, edo pareko erabilerengatik, nahiz eta interes publikokoak izan, urteko: 50 euro.

APLIKAZIO ARAUAK

Toldoak, herri bideetan oinarriak dituzten itzala emateko instalazioak, trenkadak etab. ezingo dira jarri lurrari finkatuta.

Ez da baimenik emango oinezkoen edo ibilgailuen joan-etorria oztopatzen duen elementurik jartzeko, ez eta eraikin edo establezimenduetarako sarbide librea oztopatzen duenik ere, ez eta eraikin edo establezimenduei dagokien finkaren fatxada-lerrotik kanpo ere, salbu eta interes-dunek okupazio-sarbiderako baimena edo adostasuna ematen badute, zuzenean eragindako industrialek edo auzotarrek sinatuta.

Iruña Okako udalak erabakiko ditu aurrez azaldutako guztiaren okupatzeko metro kopurua, lerrokadurak, formak eta ereduak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honen aplikazioa aldi baterako eteten da, 2021eko ekitaldi osoan eta abenduaren 31ra arte, COVID-19k sortutako pandemiaren ondorioz.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren 2021eko urtarrilaren 20an. Ordenantza ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.